

## ***Robinia pseudoacacia***

### **Sasiakazia**

### **Itxura orokorra**

Leguminosa hau hazkunde azkarreko zuhaitz bat da, azal gris eta pitzatua du, eta 25 metrora irits daiteke.



### **Hostoak**

Hostoak erorkorrak dira, txandakatuak eta konposatuak, 3-11 hostokaz osatuak, beti zenbaki bakoitietan (inparipinatua). Hauek, biribilduak eta ertz osokoak dira. Hostoaren oinarrian, batzuetan, txortenenaren alboetan bi arantza ikusten dira.



### **Loreak**

Loreak udaberriaren amaieran ateratzen dira mordo ugarietan, zuriak, usaintsuak eta zintzilikariak dira.



### **Fruituak**

Fruituak 3-12 cm luze eta 1-1,5 cm zabal diren lekak dira, marroik eta nahiko zapalak, adarren amaieran zintzilik.

